

HOGEI LIBURU NAGUSI HIZKUNTZAREN
ARLOARI BURUZ

Gure hizkuntzaz goratik txatxukeria franko (eta gehiegi) esan izan dala gauza ezaguna da. Baiña gaur bertan ere arinkeriarik txoroenak entzuten ditugu gure arazo larri huntaz.

Irakurleen iritziak jakindurian sendotzeko, eta hizkuntzaren problemaz xuxenago jokatzeko, on izango litzake, nere ustez, funtsezko hogeitaz liburu hauek abertzale intelektualek irakurtzea eta kontutan hartzea.

Gaingiroki bederen nolakoak diran jakiñarazteko, hitz laburretan azalduko dut beren mamia.

1 — *Cours de Linguistique Générale* (Ferdinand de Saussure) —

Liburu famatu hau behin eta berriz argitaratu da. Azkenetako bat Payot'enean, Paris 1962. Liburu hauxe da estrukturalismo guziaren oinarria ; beraz, gaurko Hizkuntzalaritzaren kakoa ; eta beste jakintza-adarretan ere eredutzat hartutako azterpidea. Liburua oso mamitsua da, adibideak argitsu, eta hizkuntzaren teoria (bai filosofiaren aldetik eta bai soziologiarenetik) guztiz mardula. Euskaltzale ikasi guziek irakurri beharko luteke gure hizkuntzaren problemaz hitzegiten hasi aitzin.

2 — *Éléments de Linguistique Générale* (André Martinet) — Armand Colin — Paris, 1960.

Liburuxka huntan, txikia izanagatik ere, ba dago zer ikasirik : bai Hizkuntzalaritza hutsaz, eta bai hizkuntzaren soziologiaz. Oso iritzi argikoa da, eta puntu askotan benetan irakurgarri.

3 — *Cuatro artículos de Lingüística Estructural* (Martinet, Hjemstev, Hintze, Johansen) — Facultad de Fil. y Letras — Buenos Aires, 1962.

Estrukturalismoaren joerak azaltzen dira, Hjemstev eta Hintze bi muturretan jarririk. Oso mamitsua, baiña bigarren maillakoa.

4 — *Les Problèmes théoriques de la traduction* (Geroges Mounin) — N.R.F, Gallimard — Paris, 1963.

Liburuaren bigarren zatia ez da guretzako oso interesantea. Lehengo, aldiz, funtsezkoa da, eta guztiz ikasgarria. Mounin'ek, bestalde,

ongi daki gaurko joeren berri; eta bere liburua onenetako bat da horregatik, nora jo jakiteko.

5 — *Le Langage : structure et évolution* (Marcel Cohen) — Editions Sociales — Paris, 1955

6 — *Pour une Sociologie du Langage* (Marcel Cohen) — Albin Michel — Paris, 1956.

Marcel Cohen marxista da. Bere iritziak, horregatik, interesdunak dira batez ere marxismoaz bereziki arduratzen diranentzako; baiña bai marxista ez diranentzako ere. Lehenengo liburua oso mamitsua da, eta bigarren zatia, 271. gn horrialdetik aurrera batez ere, oso garrantzitsua lerroz lerro gure hizkuntzaren etorkizuna garbi ikusi nahi dutenentzako. Bibliografia ugaria dakar. Marr'en teoriaren kontra mintzo da ere (sasi-marxismo hau oso ezaguna da gure arteko sasi-ezkertarren artean), Stalin'en beraren esanak baliatuz, eta „superestrukturen” gorabeherak garbi utziz. (Stalin'en „A propos de Marxisme et Linguistique” dalakoa, frantsesez irakur diteke.: Edititons Sociales, Paris 1951). 2 gn. libura batez ere oso ona da.

7 — *Choix d'études linguistiques et celtiques* (Joseph Vendryes) — C. Klincksieck — Paris, 1952.

8 — *Le Langage : introduction linguistique à l'Histoire* (Joseph Vendryes) — Albin Michel — Paris, 1950.

Vendryes (Meillet eta Dauzat bezela) Fraitzia'ko „klasiko” en artean ezar diteke. Baiña hiruetan argiena dala esan behar da. Frantsesa izan arren, beharbada bretoiñarekiko eta gaelikerarekiko izan zuen maitasunaren eragiñez („Etudes Celtiques” aldizkari bikaiña berak sortu zuen), ongixko eta chauvinismorik gabe ikusten ditu hizkuntzen gorabeherak, politikari buruz batez ere.

9 — *Les Langues dans l'Europe nouvelle* (Antoine Meillet) — Payot, Paris 1928.

10 — *Linguistique historique et linguistique générale* (Antoine Meillet) — Champion — Paris, 1948.

11 — *Les Langues du Monde* (Antoine Meillet) — Champion — Paris 1952.

Meillet gizon jakintsua izan zan; eta bere garaiean nagusi. Lehenengo

liburua oso irakurgarria da guretzat (Dauzat'ena bezela) ; eta hirugarrenean, osoki irakurtzeko egiña ez badago ere, zauskada bat ematen du puntu bat ikusteak : liburu lodi-lodi hortan, sail oso eta berezi bat dagoela euskerarentzat ! Aipatu dugun bigarrena bilduma bat da, interesantea atalka ; baiña politikaren eragiñari buruz, Meillet' ek ez du batere garbi ikusten egia.

12 — *La Langue et la Société* (Alf Sommerfelt) — Aschehoug — Oslo 1938.

Sommerfelt oso ezaguna da alderdi askotatik, eta Oslo'ko Unibersidade'ko buruzagi. Australia'ko Arantak aztertuz, pentsakeraren eta hizkuntzaren arteko hartu-emanak agerrerazi zituen ; eta denbora berean oiñarri bat eman zuen Hizkuntzalaritza berria finkatzeko. Oso irakurgarria.

13 — *Le Langage et la Société* (Henri Lefebvre) — Gallimard — Paris, 1966.

Lefebvre marxista ezaguna da, nahiz Frantzia'ko P.C. kin uztarrak ugari izana. Bere liburuak oso ezagunak dira : marxismoaz, existenzialismoaz, eta abar. Bere azken liburu hau ona da gaurko Hizkuntzalaritza zertan dan, eta sortu diran problemen sakontasuna noraiñokoa dan, neurtzen hasteko. Mounin'ena bezela, hastapen egokia izan diteke hizkuntzari buruzko gorabeherak somatzen abiatzeko.

14 — *La Vie du Langage* (Albert Dauzat) — Armand Colin — Paris, 1922.

15 — *La Philosophie du Langage* (A. Dauzat) — Flammarion — Paris, 1927.

16 — *L'Europe Linguistique* (A. Dauzat) — Payot — Paris, 1953.

Albert Dauzat oso ezaguna da, eta „klasiko” en artean ezar diteke. Frantses chauvinista ikaragarria da : bere itisutasuna siñistu ezin da batzutan. Halere egia haundiak aurkitzen ditu batzutan (gero, frantses hizkuntzari dagozkiolarik, arras ahaztuak !). Bere hirugarren liburua batez ere irakurgarria zaigu.

17 — *La Linguistique* (Jean Perrot) — P.U.F. — Paris, 1953. „Que sais-je” saillekoa. Liburuxka osos argia dugu. Hasteko on izan diteke. Bibliografia ba dakar, ongi aukeratua.

18 — *El mundo maravilloso del Lenguaje* (Walter Porzig) — Editorial Gredos — Madrid, 1964.

Liburu lodia, baiñan mamitsua : eta teoriak ederki azalduak. Españeraz dagoen ezkerro, eta Madrille'n berriki argitaratua, on izan dakieke Euskal Herri'ko hegoaldetarrei.

19 — *Anthropologie Structurale* (Claude Levi Strauss) — Plon — Paris, 1958.

Levi Strauss da etnologiaririk ezagunena une huntan. Bere artikulubilduma sonatu huntan ez da bereziki hizkuntzari buruz mintzo; baiña bi kapitulutan batez ere hizkuntzari buruz ari da gehien bat, eta bere iritziak oso inportanteak dira.

20 — *L'Europe des Ethnies* (Guy Héraud) — Presses d'Europe — Paris 1963.

„Branka”ren irakurleek Strassbourg'eko gure adiskidea ezagutu dute. Bere liburu hau bereziki hizkuntzez ez ari izanagatik ere (beste bat gertu bide du huntaz) oso irakurgarria izan diteke Europa'ko erresumek hizkuntza-politikari buruz hartu dituzten jokabideen berri jakiteko.

Tx.